

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA	Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	ARTE HEZKUNTZA	DATA	2018-2019
MAILA	3.ZIKLOA		
1	ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA		
<ul style="list-style-type: none"> - Oro har, ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta oro har herri guztietako ondarea eratzten duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozaten laguntzea. - Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen oinarriko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan eta haien erantzunak egiten erabiltzeko, eta, horrela, maila bateko autonomia lortzea arte-hizkuntzaren bidezko komunikazioan. - Arte-adierazpenen teknikak, baliabideak eta arauak ikertzea eta aztertzea, ikusizko kulturako eta musika-kulturako lanetan, lan horiek hobeto ulertzeko eta lan horiez gehiago gozatzeko, eta erreferente estetiko berriak garatzeko aukera izateko. Horrez gainera, arte hizkuntzaren eremua zabaltzea. - Pentsaera dibergentearen eta konbergentearen trebetasunak eta norberaren eta besteren ideiak eta sentimenduak berregiteko ekimena, irudimena eta sormena erabiltzea, beharrezko prozesuak antolatuz, arte-ekoizpeneko lanetan erabili ahal izateko. - Gai izatea sorkuntza-proiektuak eta –lanak garatzean emaitza jakin batzuk lortzeko egin beharreko prozesuen plangintza egiteko, ebaluatzeko eta doitzeko, eta horrek guztiak eskatzen dituen erronken jakinaren gainean egotea. Horrez gainera, arazoak sortuz gero, jarrera eraikitzailez konpontzea. - Arteen eta ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimenduetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketean eta izan duten zeregina ulertzeko eta norberaren kultura-ondarea eta inguruko beste kulturen ondarea ezagutzeko. - Ikusizko arte-ekoizpenak eta musika-ekoizpenak eta ekoizpen horiek sortu diren garaiaren eta tokiaren ezaugarriak lotzea, ekoizpenen arte-balioa ulertzeko, bai eta garai edo gizarte-talde baten adierazpen gisa ekoizpenek izandako balioa ere. Horrela, arte-ekoizpenaren eta ekoizpenak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean duen oihartzunaren eta esanahiaren balioa ezagutzeko eta kritika-prozesuak hasteko bideak irekiko dira. - Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartasunez jokatzeko, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak garatzeko eta, gizartearen alderditik begiratuta, garapen pertsonala izateko. - Norberaren artelanetan konfiantza izatea, lanak egiten gozatzeko eta norberaren eta taldearen hazkunderako egiten duen ekarpena aintzat hartzea, auto-estimua sendotzeko eta ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna hobetzeko. 			



- Euskal kultura-ondarearen eta beste herri batzuetako ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea. Kontuan hartzea zer nolako aberastasuna ematen duen hainbat kulturatako pertsonekin trukea izateak.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<p><u>PLASTIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Picasso. Lan teknikak: Artistaren bizitza eta obren ezaguera ikus entzunezko bideoak erabilia. - Koloreen nahasketa. Lan teknikak: Kolore primarioak eta sekundarioak identifikatu eta ikasi. Kolore hotzak eta beroak desberdinu eta lanetan aplikatu. - Gernika. Lan teknikak: Picassoren Gernika margolana kolore beroak edo hotzak erabilia margotu. - Picassoren autorretratua. Lan teknikak: arte lana eskala handiagoa batean koadernoan erreproduzitu eta kolore originalekin arte lana margotu. -Kandinsky. Lan teknikak: Artistaren bizitza eta obren ezaguera ikus entzunezko bideoak erabilia. -Kandinsky. Lan teknikak: Artistaren estiloa kontuan izanda, bakarkako arte lana sortzea, margolariaren eragina obran argi ikusiz. -Kandinsky. Lan teknikak: 	<p><u>PLASTIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Inauterietako mozorroa sortu. - Marrazketa librea. Teknika desberdinak (itzalak, puntuak, marrak...). - Pausoz pauso egindako marrazkiak. Lan teknikak: Lerro eta forma geometrikoetatik abiatuta animaliak, landareak, objektuak zein pertsonak sortu. <p><u>MUSIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Musikagile famatuak. Lan teknikak: azpiragarrien ezaguera. Konposatzaile bilaketa eta beraiei buruzko talde lana ikt-en erabilera sustatuz. - Musika elementuak. Lan teknikak: Tono eta semitonoa. Testura musikala. - Erlaxazioa: Lan teknikak: erlaxatzeko eta musikaz lasai gozatzeko jardura desberdinen lanketa. - Notak. Lan teknikak: noten izenak guztiz barneratuak izan. Pentagrametako notak izendatzen eta identifikatzea. 	<p><u>PLASTIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskulana. Lan teknikak: Material birziklatuarekin sortutako arte lanak burutu. <p><u>MUSIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Musika eta pelikulak. Lan teknikak: beraien arteko harreman eta uztarketaren lanketa. - Musika elementuak. Lan teknikak: monodia, melodia akonpañamenduarekin eta polifoniaren arteko aldeak eta erabilera. - Abestien letretan sakonduz. Lan teknika: interpretazioa eta hausnarketa sustatu. Letren gaiak; bakea, guda, pobrezia, aldaketa klimatikoak, bakardadea, maitasuna, hondamendiak... - Sentimenduak, pentsatzeko erak zein iritziak adierazteko baliabidea dela ohartu. Eskolarako abestiak sortu.



Taldeetan mural handi bat sortu, material birziklatu desberdinak erabiliz, artistaren estiloa argi adieraziz.

MUSIKA:

- Zeinu musikalak. Lan teknikak: musikako elementu guztien errepassoa eta erabilera sustatu. Jarduera praktikoak burutu.
- Notak. Lan teknikak: noten izenak guztiz barneratuak izan. Pentagrametako notak izendatzen eta identifikatzea.
- Musika elementuak. Lan teknikak: goranzko eta beheranzko noten jarduerak. Dinamika musikal desberdinak ikasi (*p, pp, mz, mp, f, ff*).
- Instrumentuak. Lan teknikak: instrumentuen ezaguera. Triangelua, klabeak eta txirula jotzen ikastea.
- Dantza. Lan teknikak: beroketa dantza. Dantza aktiboa. Mugimenduen garapena.
- Abestea. Lan teknikak: kantak ikasi eta klasean abestu. Euskal kantak landu. Gabontako kanta.

- Instrumentuak. Lan teknikak: Orff instrumentu ezaguera. Abesti batean ageri diren instrumentuak identifikatzeko jarduerak. Triangelua, klabeak eta txirularen erabilera.

- Dantza. Lan teknikak: beroketa dantza. Dantza aktiboa. Mugimenduen garapena. Ikasleen lanketa.

- Gorputz perkusioa: Lan teknika: musika interpretatu eta adierazteko modu bereziak landu.

- Abestea. Lan teknikak: Canon-a zer den ikasi eta praktikara eraman.

-Kutsadura akustikoa: Lan teknikak: zer den, zer eragiten duen, eta zeintzuk ondorio dituen bilatu, aztertu eta ikasi. Kutsadura akustikoa ekiditeko edo murrizteko hartu beharko ziren neurriak idatzi eta eztabaidatu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Adierazpen estetiko- artistikoko bitartekoen arteko loturak finkatzea: musika, ikusizko arteak, dantza, literatura, poesia... Antzekotasunak kontuan hartzea.
- Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak egiteko, norberaren premietara egokitutako teknikak, baliabideak eta arauak erabiltzen ditu, eta haiek aukeratzeko arrazoiak ematen ditu.
- Baliabide teknikoekin eta musikako eta ikusizko arteetako hizkuntza baliabideekin lotutako gaietan eman izan diren konponbideak aztertzea, eta erreferente estetiko berri gisa sartzea.
- Ideiak, irudikapenak, lanak... eraldatzeko, irudimena, bilaketa, manipulazioa... erabiltzea.
- Bakoitzaren lan-prozesuaren plangintza egitea, arrazoituz, komunikazio premien arabera.
- Irudiek eta musikak eguneroko ingurunean dituzten esanahiak eta erabilerak kritikoki interpretatzea.
- Gizarte-alderdiek (botere-harremanek, generoak, ideologiak...) artelanak sortzeko duten garrantzia ulertzea, eta ikuspegi kritikoa garatzea.
- Taldeko jardueretan parte hartzea, eta lankidetzeta-jarrerak erakustea, jarduera horiek ondo ateratzeko.
- Taldean egiten diren arte-jardueretan norberaren ekarpenak duen garrantzia balioestea, bai eta pertsonen arteko kohesioan lankidetzak duena ere.
- Hainbat jatorri eta kulturatako arte-adierazpenen arteko erlazioa elementu aberasgarria eta prozesu historiko errepikaria dela ulertzea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Musika irakasgaiako kalifikazioaren portzentajea honelako da:

- **Edukiak: % 30** (Edukien barneraketa frogatzeko jarduerak, lanak eta jolasak. Banakako eta taldeko lanak, ahozko adierazpenak...)
- **Prozedurak: %40** (Lan taldeak burutzeko jarraitutako prozesua, sormena, koaderno eta fitxen ordena eta txukuntasuna, jarduera musikalak burutzeko era...)
- **Jarrera: %30** (Parte hartzea, lan egiteko nahia, interesa, errespetua bai irakasgaiarekiko, bai ikaskideekiko eta bai irakaslearekiko...)

Plastika irakasgaiako kalifikazioaren portzentajea honelako da:

- **Prozedurak: %50** (Lanaren garapena pauso zuzenak jarraituz, materialaren erabilera, beharrezkoak diren tresnen erabilera, lanaren azken emaitza...)
- **Jarrera: %50** (Lanaren eta materialaren ardura, errespetua bai irakasgaiarekiko, bai ikaskideekiko eta bai irakaslearekiko, materialaren ordena eta zainketa, bakarkakoa eta kolektiboa, ordena, lana ondo burutzeko interesa, garbitasuna lan egiteko eremuan...)